

Erref.- FMR / Legelari Aholkularia

GAIA: ERABAKI-PROPOSAMENA, LANGILEEN KONTRATAZIOAN EGITEN DIREN DEIEN ETENDURA ETA COVID-19 KORONABIRUS-KASUEN AGERPENEK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZKO XEDAPEN LOTUAK INDARGABETZEKOA.

COVID-19 infekzio-kasuek -koronabirus-19ren ondoriozko gaixotasun infekziosoa-, eta gure eremuan izan zuten eragin bereziak, Erakundearen zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileen kalteberatasun bereziarekin batera (adinekoen, soziosanitarioen, desgaituen eta adin txikikoen esparruei zegokienez), aukera ematen zuten ezohiko neurriak hartzeko, infekzio hori behar bezala aurreikus zedin eta osasuna babesteko oinarritzko eskubidea ere bermatu zedin; eskakizun bera agertzen zen Erakundeko langileekin.

Hala, osasun-agintariekin batera, mugatu egin zen senideen eta kanpoko pertsonen bisitetarako sarbidea, haien kontrol zorrotzaren bidez, bai halaber, bereziki, kontratatutako langileen txandakatzea ahalik eta gutxien murriztuz, lantoki bakar batean lan egin ahal izateko.

Bada, oso salbuespenezko neurri horiek ezarri ziren Gobernu Batzordearen 2018ko apirilaren 13ko Erabakiaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 76. zk., apirilaren 20koa) onartutako Burtsak Kudeatzeko Irizpideen gainean, eta, ondorioz, osasun-alertaren beroan indargabetu egin ziren. Ondorioz, beren jokia eten egin zen, Batzorde horren beraren 2020ko martxoaren 7ko Akordioaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2020ko martxoaren 16koa).

Orain gertatzen da igarotako denborak eta abian den txertaketa-kanpainak egoera oso desberdina erakusten dutela txertatutako ia erabiltzaile guztiekin, eta gaur egun antzeko prozesuan daudela langileekin. Horren ondorioz, arindu egin behar dira kontratazioari ezarritako mugak, eta laster normaltasun berriko egoera bihurtu behar da, non deiek ohiko izaera arautua izaten jarraituko duten.

Gauzak horrela, zentzuzkoa da irizpideak berrezartzeko data zehatza objektibatzea, laguntza-zentroetako erabiltzaileei, batez ere adinekoei, txertoen bigarren dosia inokulatu eta hurrengo eguneko datarekin urrikalduz. Beraz, txertaketa-egutegiaren arabera, datorren martxoaren 8a izango litzateke data.

Erakundearen gizarte-ordezkaritzak ontzat jo du ekimen hori. Eta balorazio bera egin da Laneko Segurtasun eta Osasuneko Batzordean eta Aurrebatzordean.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldatzeari buruzkoak, 5. artikuluan xedatzen



duenaren arabera, Gobernu Batzordeari dagokio erregelamenduak egiteko ahala baliatzea, erakundearen funtzionamendu egokirako egokitzat edo beharrezkotzat jotzen diren arauak onartuz.

Horregatik guztiagatik, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, azter dezan, honakoa:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Lan-poltsak Kudeatzeko Irizpideetan jasotako zehaztapenak eteteko Gobernu Batzorde honek 2020ko martxoaren 7an hartutako erabakiaren indarraldia indargabetzea, laguntza-zentro bakoitzeko lan-kontratueterako deiak diskriminatuz

Bigarrena.- Era berean, ondoriorik gabe geratuko dira betearazpenean antzeko mailarekin edo beheragoko mailarekin emandako edozein garapen-xedapen eta/edo xedapen osagarri.

Hirugarrena.- Erabaki honek datorren martxoaren 8an izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta GUFEn webgunean noiz argitaratu gorabehera.

Bilbon, 2021eko otsailaren 25ean

GERENTEA

Sin.: David LATXAGA UGARTEMENDIA